


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MIRAKRUZ 1



Egilea eta data: Domingo Aguirrebengoa; 1926

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, altuera handiko behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azkena atzeraemana. Denak jatorrizkoak dira. Fatxada entokatua, goi oinetatik bereizitako tratamenduz margotua eta kalitateko eta erliebeko kareharrizko plaka estaldura behe oinean (harri landuzko ataria). Hormigoizko begiratoki bikoitza du bao zentraletan. Proiektu komuna Erronda 1ekin.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: elementu moldekatuak; behe oineko estaldura.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.